

B


BARREN

TOKIKOM



**“San Lorentzoko basarritar danek
jokatzen zebeu ondo pelotan”**

Sabin Txurruka, pilotaria



Burgoa Somoza

arraindegia - pescaderia

San Frantzisko kalea, 2

Tel.: 943 748 130

**Umore onez
eta arrain ederraz
zain izango gaituzu!**



ORDUTEGIA:

Astelehenetan 10:00etatik 13:30era

Martitzenetik zapatara 8:30etik 13:30 era

Arratsaldean martitzen, eguazten eta barixakuetan

17:00etatik 20:00etara



1925tik arrain-saltzaileak

Olaisa

Laser **Diodoa**

San Inazio, 4 behea

20870 Elgoibar

Tel.: 943 742 725

www.ammergroup.es



Berrezten du
Berdefinitzen du
Bermoldatzen du

UDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetan zabalik!

10:00etatik 12:30etara

14:30etatik 18:30etara

Lytess

Kosmetotextil sortzailea

Gorputzeko koipeak
erretzen ditu,
drainatzailea da eta
pilaketaren kontra
eragiten du.


GERMAINE DE CAPUCCINI

10 egunetan bolumena jaisteko programa

2,03 zm
Makarretan



1,4 zm
Izterretan



Sallobenteko frontoiren ehungarren urteurrena. Zorionak, 'Txutxo'

Ez dira urte asko pasau Sallobenteko auzuan, San Jose egunez, auzoko pelota txapelketako finala jokatzen zanetik. Bi maillatako txapelak jokuan zirala, ezker pareteko eta errebote gaiñeko harmailak betetzen zittuan jendiak. Betiko ofizialak erreboteko egurrezko ateko zulotik begira egoten ziran. Lekua topatu ezin zabana eskumako pareteko horma gaiñian jartzen zan, eta ahal zabanak eskillara bat hartu eta sarian ostetik jartzen zan begira. Hórrek danen bistan, frontisian guenian, eta ondo ikusteko moduan, "JOLAS TOKI 1.911" jartzen zeban. Plaza alderago pasiaran zabizenen atentzio eta inbidi, elizpian, arkumak erretzen zittuzten burduntzixan. Martxuaren 19xa egun haundixa izan da beti; jai bat auzuan, soziedadian; bertakuentzat eta pelotari lotuta egon diran herritarrentzat.

Hiru pareteko frontoia, altura Erdiko eskubi pareta, saria, egurrezko sabai bajua... desberdiña ohiko frontoietatik, nolabaitteko "trinketia", beste frontoietan derrigorra dan indarra baiño gehixago eskua eskatzen dabana; dotoria, eskuz jokatzeke. Teillapian



ehun urte betiak dittuana. Zapatu honetan ospatuko da frontoi berezi honen ehungarren urteurrena. Auzo honek pelotari ezagun asko eman dittu, baiña egun honetako protagonistia Sabino Txurruka *Txutxo* izango da. Zaletasun askoko gizona bera: arrantza, ehiza, lagunartia, lagunei adarra jotzia..., baiña hórrek danez gain, danok dakigun bezela, pelotan profesioaletan egindako ibilbidia eta pelotarako zaletasuna azpimarratu behar dittugu Txutxo ari garenian. Hori dala eta, apirilaren lehenengo asteburu honetan Txutxo omenduko dogu. Frontoi partikularra izatiak ezindu dau azkenengo urtiotan txapelketia antolatzia. Esandako arrazoiengaittik, 10 BAI taldiak Elgoibarren ganorazko frontoi baten alde egitten ari dan ekintzen artian, Sallobenteko frontoiaren ehungarren urteurreneko ospakizunak eta Sabiñi egingo jakon omenaldixa antolatu dittu bixarko. Goizeko hamaiketatik aurrera, ez da txalaparta, trikitixa, eta jan-edanerako aukerarik faltako, eta beraz, animatu eta etorri zaittie. Zorionak, Txutxo!

Ganorazko frontoi baten alde.

Josu Perea eta
Karmel Leon,
10 BAI taldearen izenian

**“Martxuan 19xa egun haundixa izan da beti auzuan, soziedadian;
bertakuentzat eta pelotari lotuta egon diran herritarrentzat”**

II. URTEURRENA

ITZIAR JUARISTI ZABALA



*Bi urte dira gure artetik joan zinenetik
eta nahiz eta hasieran oso gogorra izan zen
onartzea gehiago ez zintugula ikusiko,
bizi zinen bitartean emandako maitasunak
eta alaitasunak indarra ematen digute aurrera jarraitzeko.*

Aurretik, aita, Josetxo, Lorea eta zure senarra Jose Luis Soraluze joan ziren. Beti egongo zarete gurekin. Maite zaituztegu. Muxu handi bat denontzat.

Ama eta familiakoak

2009ko apirilaren 6an hil zen. II. urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 2an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde aurretik.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Eskerrik asko bertso bazkarian parte hartu zenuten guztioi: Sahatzu, zuri, haragi xamur goxoa sukaldatu baino askoz gehiago egiteagatik. Zure gomendio eta esku-sartzea dela eta bazkaria hobea izan zedin lortu genuen. Antonio Azpiazu, Pirri, Kaiser eta Bittori: frontoia,kafe, furgoneta, edariak... Mertzil!Txotxe, Bengi, Bastida, Vini, Iñaki Odriozola, Markos, Javi, Urze eta Pilar ere, ezin ahaztu. Amets Arzallus, Jon Maia eta Baltzola anaiek, umetxo eta nagusien pasakalleak eta barreak eragin zenituzten, eta bazkaloste ederra sortu, musutruk. Biba zuek! Bazkarira ondo pasatzera eta Arnaldo aska dezaten eskatzera etorri zineten guztiei: segi horrela eta hurrengora arte!

Ordubatean herriko plazatik abiatutako triki-poteoak bideratu zituen askoren pausoak gure bilgunera. Madalan egin zuten bat gurekin Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariek, eta arratsalde eder bat pasatzeko prest ginen.

Berrehun pertsona inguru ginen bazkaltzeko prest. Arnaldoren etxeak mahai-buruan eta beste kolore askotako hainbat lagun eta ezagun hantxe haiei babesa eskaintzen. Bertsolariek hartu zuten txanda, kafeak eta patarrak animoak neurri egokian jarri zituztenean. Neurri txiki eta handian egindako bertso eder saila entzun eta gero, trikitalarien txanda. Ekitaldiari amaiera emateko bertsolarien saio ederra, berriz ere. Ba, horixe: ekitaldi ederra izan zela eta ez dakigula nola eskertu gure deiarri erantzunez parte hartu zenuten guztioi.

Arnaldo askatu, politika askatu herri-ekimena ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Unai
Arrieta

Duela hiru aste Eibarren jokatu genuen ligako 20. jardunaldia. Beti izaten da berezia Eibarrrera itzuli eta lpuuran jokatzeari. Taldekide eta ikusle ohien aurrean jokatzeari beti sortzen du halako zirrara berezi bat, zerbait erakutsi nahiak eraginda edo.



Zuhaitz
Gurrutxaga

lpuurara egindako azken bisita hau ere

tenore horretan joan zen. Emozioak emozio, gogotik lan egin ondoren partida irabaztea lortu genuen. Arratsaldeak, ordea, izan zuen beste berezitasunik. Ikusleen artean elgoibartar asko izan zen. Tartean, Sanlo Eskubalo Eskolako gaztetxo mordoxka bat. Partida bukaeran, beraiekin hitz bi egin eta argazki bat ateratzeko aukera izan nuen.

Ez dizuet egia ezkutatu, gure herriko gaztetxo horiekin izandako topaketak harrotasun puntu bat sorrarazi zidan, gustura sentiarazi ninduen. Momentuko harrotasuna baretu zitzaizkidan, ordea, ardurak bete zuen nire gogo-barrena. Kirolariok gaztetxoaren eredu izan gaitzekin aldetik, kantxan arduraz jokatzeko dugun erantzukizunak larritu ninduen.

“Gazteen eredu izan gaitzekin aldetik, arduraz jokatzeko erantzukizunak larritu ninduen”

Goi mailako kirolak oinarritzat duen eredu “erresultadista”-ren (barka erderakada) aurka nago erabat. Kirolean ez du denak balio, ez du edozein modutara irabazteak balio. Emaizak lortzeko bidea gauzak ongi egitea izan behar duela iruditzen zait. Gaztetxo askorentzat eredu izan gaitzekin aldetik, ezin dugu oldarkotasunik, agresibitate edota tranparik onartu. Gure jokatuak garbia behar du izan, aurkari eta araeuakiko errespetuzkoa (nahiz eta beti nahi bezain justuak ez izan), talde-lankidetzaz sustatzen duena, eginbeharretara zuzendua eta, esfortzua, pertseberantzia eta hobekuntza-iraunkorra oinarritzat balioztatzen dituen. Zer iruditzen zaizu, Zuhaitz?

Kaixo, Unai! Beti da berezia aurrez aritutako taldearen etxean jokatzeari. Motibazio estra bat izaten da, ezohiko nerbioak ere bai askotan. Bestalde, izaten da inoiz aurrez jokatuak taldean ongi baloratua ez izanaren ustea, eta halakoe-tan haien aurka zerbait demostratu beharra sentitzea. Halakotan, Unai, gaitzeko gehiago izaten da, antsietatea eta amorrua bidelagun izanik.

Bestalde, ados nago zuk aipaturiko gogoetarekin.

Goi mailan dabilen kirolariak eredu behar luke izan hain-

beste gazteren begiraden aurrean. Soberako oldarkortasuna, tranpak... ez lirateke bide izan behar garaipena lortzeko. Gizarte edo herrialde bakoitzak, Unai, bere jokatzeko erak ditu, eta iruditzen zait goi mailako kirolean dauden jokaera asko gizartearen egunerokoaren isla direla. Badakit, bai, Ingalaterrako futbol ligan, esaterako, penalty edo falta bat simulatzen duen jokalaria gogor zigortzen dutela bai araudiak berak, bai aurkariak, eta, baita taldekideak ere. Badago han *gentleman* izaera bat, bai egunerokoan eta baita kirolean ere. Gu aritzen garen txapelketetan, aldiz, uste dut gizalegez jokatzeari baino gehiago baloratzen dela “pikareska” bera. Aurkaria eta epailea engainatzen duena jokalaria argia da, eta ez iruzurtia. Gu nahi edo nahi ez, ohituak gaude jokatzeko modu horretara, nahiz eta jakin ez dela modurik zuzenena emaitza onak lortzeko.

“Goi mailako kirolariak eredu behar luke izan hainbeste gazteren begiraden aurrean”

Ez dakit, beraz, gizarteak hartzen dituen kirolarien jokaerak eredu-tzat edota kirolariak eurek hartzen duten gizartearena, susmoa baitut kalean ere jendea “pikareska” esaten duten horretaz baliatzen dela egunerokoan aurrea egiteko.

Dena dela ere, ea guztiok hartzen ditugun behar bezalako ereduak, gu geu ere besteentzako ispilu izan gaitzen.

ESKERTZA

MARIA EPELDE ARRIOLA

Valerio Esnaola “Muxillo”ren alarguna

2011ko martxoaren 23an hil zen.

*“Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan”.*



Krisiak eragindako legealdia izan arren, inbertsio handiak egin dituztela nabarmendu du EAJk

Udalak zorrik ez duela adierazi du Alfredo Etxeberriak legealdiari buruzko balorazioan

EAJ alderdiak legegintzaldiko balorazioa egin zuen joan zen egue-nean Batzokian, eta besteak beste, krisiak eragindako legealdia izan dela nabarmendu zuen Alfredo Etxeberria alkateak. Hala ere, hori ez dela oztopo izan gaineratu zuen, eta inbertsio handiak egin dituztela aipatu zuen. "Bertako eta kanpoko (Foru Aldundia, Eusko Jauriaritza eta Estatuko Gobernu) baliabide ekonomikoak erabiliz egin ditugu inbertsiorik handienak, 2009an eta 2010ean". Inbertsio horiei esker, Udala "eraberritu" egin dela uste du Etxeberriak.

Horrez gain, Udalak zorrik ez dela ere adierazi zuen alkateak, eta bilakaera ekonomikoaren balorazioa egin zuen: "2007ra arte hazkunde handia izan zen, sarrera arruntei dagokienean. 2008an sarrera horiek moteldu egin ziren, eta 2009an, berriz, behera egin zuten. 2010ean bere onera itzultzen hasi ziren, eta espero dugu joera hori 2011n



Alkatea eta EAJko zinegotziak legealdia baloratzeko ekitaldian.

sendotzea". Une honetan, gastu orokorretarako 1.524.606 euro ditu Udalak.

Legealdi Plana, 'aitzindaria eta beharrezkoa'

Elgoibarko EAJ alderdiaren ustez, Legealdiko Plana "funtsezko lanabesa" izan da krisia "eraginkortasunez" gainditi ahal izateko. Horrez gain, "egonkortasuna" ekarri du, eta agerian utzi du "informazioaren arintasuna elkar

ulertzeko eta elkarrenganako konfiantza izateko lehendabiziko araua" dela.

Legealdi Planari esker lau urteotan 25 milioi euro inguru kudeatu dituztela esan zuen Alfredo Etxeberriak, Udaletik eta beste instituzioetatik ailegatu den dirua kontuan hartuta. Kopuru horretatik %30-40 inguru inbertsioetarako bideratu dituzte, eta Legealdi Planean jasota zeuden 166 jardueretatik 153 hasita daude dagoeneko.

Osasun hezkuntza sustatzeko 13.000 euroko dirulaguntza eman die Udaleko Gazteria Sailak herriko ikastetxeei



Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak 13.000 euroko dirulaguntza eman die herriko ikastetxeei, ikasturtean zehar osasun ekintzak eta programak sustatzeko. Joan zen astean sinatu zuten hitzarmena Udalak eta ikastetxeek. Alfredo Etxeberria alkateak eta Herri Eskolako, Ikastolako eta Meka eta Arreiturre Institutuetako zuzendariak hartu zuten parte sinatze ekitaldian. Udaleko Gazteria Sailak izango du hitzarmena betetzen dela egiaztatzeko ardura.

Lekua **Plaza Txikia**



Gaur hastekoak dira Plaza Txikiko lurra berritzeko obrak. Taxi geltokitik San Bartolome parrokiaraino bide berria egingo dute. 125 metro inguruko luzera izango du bide berriak, eta sei-zazpi metro inguru izango ditu zabalean. Bide batez, Plaza Txikia eta San Bartolome kalea lotzen dituen kalexka ere berrituko dute. Era berean San Bartolome eta Errosario arteko kalexkako zorua ere berrituko dute. Obra horrek 187.655 euroko aurrekontua dauka, eta hiru hilabete inguru beharko dituzte lanak amaitzeko.

Irudia **Igogailua martxan**

Joan zen zapatuan inauguratu zuten Bernardo Ezenarro eta San Roke auzoa lotzen dituen igogailua. Udal agintariak egin zuten inaugurazio ofiziala, eta berehala hasi ziren herritarrak igogailua erabiltzen. Hala ere, estreinatu zuten egun berean hondatu zen igogailua. Arazo elektronikoren bat izan zuen igogailuak, eta zapatu arratsaldean geldirik egon zen. Berehala konpondu zuten arazoa, eta domeka goizean erabiltzeko prest zegoen berriz ere.

Igogailuari esker, 15,32 metroko altuera gainditu da, eta goiko aldean 21,50 metroko zubia jarri dute trenbidea gainetik pasatzeko. Igogailuak hogeitun lagunentzako lekua dauka, eta 6:30etik 23:00etara egongo da martxan. Obra horrek 491.247 euroko aurrekontua eduki du, eta Estatuko Fondoaren bidez finantzatu dute.



Lanbide Heziketari eta Ingeniaritzari buruzko jardunaldia, bihar

Elgoibarren Lanbide Heziketaren eta ingeniaritzaren alorrean dauden eskaintzari buruzko jardunaldia antolatu du Udalak biharko, IMH eta Mekarekin elkarlanean. Alfredo Etxeberria alkateak hasiko du jardunaldia, eta ondoren, IMHko eta Mekako zuzendariak hartuko dute hitza, ikastetxeetan duten eskaintza azaltzeko. Azkenik, ikasle ohiek euren esperientziak kontatuko dituzte. Jardunaldia 11:00etan hasiko da, Kultur Etxeko sotoan.



'Lurra eta Hizkuntza' egitasmoa maiatzera atzeratu dute

Atxutxiamaika aisialdi taldeak maiatzean hasiko du *Lurra eta Hizkuntza* egitasmoa. Lehenengo jarduera apirilaren 10ean egitea aurreikusitako zuten, baina egun horretarako Jose Gurrutxaga Haur Krosa antolatu du Ikastolak. Hortaz, *Lurra eta Hizkuntza* egitasmoaren lehen saioa maiatzaren 8an izango da.

Sorturen aldeko manifestaziorako deia

Sortu alderdia legalizatzeko manifestazioa egingo dute bihar, Bilbon, eta Gernikako Akordioaren sinatzaile diren eragile politiko, sozial eta sindikalek, hara joateko deia egin diete elgoibartarrei. Manifestazioa 17:30ean hasiko da, "Euskal Herriarentzat normalizazioa eta legalizazioa orain" lelopean. 16:30ean irtengo da autobusa, Txankakuako geltokitik.

SABIN TXURRUKA PELOTARIXA

“San Lorentzoko frontoia baiño eskola hoberik ez dago tranpa guztixak ikasteko”



Sallobenteko frontoia 100 urte beteko dittuala-eta Sabin Txurruka Txutxo omenduko debe bixar 10 Bai taldekuek. 4 urterekin ikasi zaban Sabiñek pelotan, auzoko frontoian. Zein hobeto, hortaz, Sallobenteko frontoiaren sekretuen berri emateko. Laga, berriz, 60 urte beteta zittuanian laga zion pelotan jokatziari. Frontoian, etxian edo lanian baiño ordu gehixago pasatu dittuala dio. Bere esku eta hatz okertuek ez dala gizurretan ari erakusten debe.

Sallobenteko frontoian ikasi zendun pelotan jokatzen?

Bai. 4 urterekin hasi nitzan pelotan, eta 60 urterekin laga nion jokatziari. San Lorentzoko ganbara zaharreko eskolan hasi nitzanetik hementxe ibilli naiz ni, eskolatik frontoira eta frontoittik basarria [Frontoittik hiru minutura dago Orraindi basarrixa]. Eskolan ez gendun asko ikasi, baiña pelotan bai. Hemen ez zagan besterik; ez zagan foballik eta halarakorik, pelotia bakarrik. Amari galtzerdixa soltau eta pelotak ere geuk egitten genduzer Eskua hartu gendun, eta azkenerako elegantiak egitten genduzen. ‘Baraterua’ ere egotzen zan, Artazo, baiña haura pagau egin bihar izaten zan-eta...

Sallobentetik irten dira Elgoibarko pelotari onentsuenak.

Halaxe da, bai. Eskolia kalera juan zanian galdu zan hori, baiña. Sallobenteko baillara dozena bat pelotari profesional egon dira: Artazo, Arriola IV, Berduneko neska-mutilak

Badiola, Gabilondo... hórrek danak hemen-guak ziran. Gure maixua Artazo [Justo Juaristi Izagirre 'Artazo II'] izan zan. Asko erakutsi zigan harek. *El Sabio de Sallobente* deitzen ziuén.

Entzuna dot domeketan demaseko girua egoten zala Sallobenteko frontoian.

Saltsa haundixa egoten zan hamen. Baserritar danek jokatzén zeben hemen ondo, ondo gero eh! Harek begira egoten giñan gu, txoratuta.

Txapelketak izaten ziran?

Kebe. Desafixuak botatzen ziuén elkarri, batzuek meza ostian eta beste batzuek meza-tan ere bai, atzeko koruan. Meza ostian jokatzén ziran bi partidu, txanda librian. Jokatzailiak errebotian jartzén ziran eta ikustailiak goiko balkoian. Eskutiek eskura dirua jokatzén zan, barra-barra. Pelotarixak, danak baserri bueltakuak. Akorduan daukat askok hanka hutsik jokatzén zebela, baita neuk ere. Abarkekin jokatuz gero, zerekin ibilli bihar giñan ba gero behi zaiñian? Ez zan danerako ailegatzen, eta geunkan apurra ondo zaindu bihar! Oraingo zapatillak harrapatu bagenduzen...

Frontoi berezixa da Sallobentekua.

Sallobente moduko auzo batentzako frontoi elegantia da. Aurreko jokua hartzeko aproposa da oso, trinkete baten antza dauka-eta. Tranpa guztixak ikasteko eskola hoberik ez dago. Hori bai, frontoi haundira juaten giñan galtzia tokatzén zan. Kontrakantxia kasakriston zaguála ematen zaban! Kalekuak hona etorri eta hárek ere galdu egitten zeben.

Ez zera familixako pelotari bakarra. Zure arreba, Maria Anjeles, erraketista izan zan.

Bai. 15 urterekin egin zaban debuta Bartzelonan. Valentzian egon zan, Kanariasetan ere bai, eta handik juan zan Ameriketara, Mexikora. Hantxe amaittu zaban karrera, eta han bertan ezkondu zan. Gero hona etorri, eta hil egin zan.

Deba Baillarako Txapelketako errege zaittugu. 1957tik 1979ra 11 txapel irabazi zenduzen. Ondo moldatzen zifian txapelketa horretan, ezta?

Estreñiako Deba baillarakua Plaentxikin atera naban, Alonsorekin. Bixok giñan elgoibartarrak, baiña Plaentxikin jokatu gendun. Gero aldatu zeben araudixa [bikotiek jaixotako herrixarekin jokatu behar zebela zion araudixa]. 24 urterekin atara



Sabin Txurruka (ezk.) bere aurreneko bikotekidearekin, Alonsorekin.

“Profesionalek baiño diru gehixago irabazten gendun uda partian”

naban lehen txapela, eta azkena, 44 urte beteta.

Pelotari esker makiña bat bazter ezagutuko zenduzen, ezta?

17 urtera arte, taillerrera hasi nitzan arte, ixa kalera bajatu ere ez nintzan egin. Eta pelotia izan ez balitz baserritik irten ere ez naban egingo, igual. Euskal Herri osotik barrena ibilli naiz pelotari esker. Madrilén, Guadalajaran eta Frantzian ere jokatuta nago. Makiña bat txapel irabazteko suertia eduki dot, gaiñera.

Zein ziran zure pelotari ezaugarrixak?

Ezker eskua hobeto dominatzen naban eskumia izanagaittik. Sasoi hartan pelotari gixtik zauken ezker ona. Harekin kruzatzen naban pelotia nik, hauraxe zan nere tranpia. Airez ere bastante sartzen nitzan.

Afizionatuetan puntan ibilli zifian. Profesionalera pasatzeko eskaintzarik egin zizuen?

Sekula ere ez. Lau t'erdixan ondo moldatzen nitzan arren, kolpia falta jatan kantxa osorako. Hala ere, sasoi haretan, profesionalek baiño diru gehixago irabazten gendun uda partian. 1.500 edo 2.000 pezeta ematen ziguén partiduko. Diru dexente zan hori. Profesionalak baiño askoz merkiaguak giñan gu, eta jaixetan herri askotatik deitzen ziguén. Norberari deitzeko, baiña, destakau egin bihar zan Hernani, Antiguó edo Añorga moduko plaza inportantietan. Hara eta hona gertu gabe ibiltzen giñan udan. Bi egunian hiru partidu ere jokatzén genduzen. Aldatzeko astirik gabe juaten giñan herri bate-tik bestera. Profesionaletan puntan ibilli ziran pelotari askorekin jokatu dot afizionatuetan: Retegi I, Lajos, Anduezatarrak, Tolosa...

Nola uztartzen zenittun lana eta pelotia?

Arriola IV [Javier Arriola Lizarralde, 'Arriola IV'] pelotarixan taillarrian egitten nabalan, eta harek erraztasun asko eman zidazen. Elkarrekin ere partida asko jokatu genduzen. Aurrelarixa zan bera ere, baiña atzian jokatzan zaban nerekin. Pelotari fiña zan gero. Harek, bai, nerbixual! Parejettan ez zan nabarmentzen hainbeste, manomanuan zan ona. Espaiñako txapel-dun, mundukua... danak atera zittuan. Fenomenua zan, *número uno!*

Herriz herri ibiltzia ez zan gaur egun bezain erreza, ezta?

Ezta urrik eman ere! Autorik ez zagan orduan, eta trenian juaten giñan Aretxabale-tara-eta. Deba baillarako partidu gehixenak domeketan, eguardiko eguzki erretan, jokatzan genduzen, baiña 9:00etarako ailegatzan giñala izaten zan problemia. Denporia pasatzeko, lehenengo tabernaren batian hamarretakua egin, eta gero, txikiteua egitten gendun, beste zeregiñik ez zaukagun-eta. Gero izaten ziran komerixiak. Erdi mozkortuta irteten giñan frontoira, eta izerdixa atera arte ez giñon gorputzari bueltarik ematen. Jesus, zenbat halako! Sasoia geunkan, eta aguante haundixa ere bai. Sekula jokatu doten partidarik luziena gogora ekarri ditt honek.

Zein izan zan, bada?

Ondarrun jokatu gendun, Mendikutek eta bixok. Arratsaldeko bostetan partidua jokatzan hasi, eta goizaldeko bostak artian 34an gauden, diskotekan. Ambiente haundixa egoten zan Ondarrun. Han ere dirutza jokatzan zan, eskutik eskura. Beruak ziran ondarrutarrak, bai horixe!



Sabin Txurruka, Alberto Aldazabal, Jose Luis Odria, Jose Bollar eta Inazio Gabilondo pelotari elgoibartarrak.

Pelotia lagatzeko erabakixa hartzia gogorra egin jatzun?

60 urterekin gripia hartu naban, eta orduantxe laga nion, derrepentian, pelotan jokatzari. Behiñ laga ezkeru laga egin bihar jako. Bestela hor etortzen dira tiratuak eta abarrak. 56 urtian pelotan ibilli eta gero, azken hamasei urtietan ez diot bote bakar bat ere egin pelota bati. Penia eman zidan lagatziak, baiña, 'nahikua egin juat' pentsatu naban.

Azken urtietan herriko auzuetako txapelketetan aritu ziñan.

Bai, eta oso gustura. San Lorentzon, San Pedron, eta Sigman ibilli nitzan. Horrez gain, San Lorentzoko frontoian eguaztenoro lagunekin egitten naban entrenamendua botatzen dot faltan. Batez ere, gero soziedadian egitten gendun afarixagaittik.

Zein izan da pelotan horrenbeste urte jarduteko sekretua?

Konstantzia, dudarik gabe. Ezin leike kontau zenbat partidu jokatu ditudan. Etxian eta la-

nian baiño denbora gehixago pasau dot frontoian, bai zati edarrian!

Elgoibar herri pelotazalia begittantzen jatzu?

Afizio haundixa euki dau, baiña asko galduta dago. Plazako frontoia erabiltzari laga ziuernian ambiente asko galdu zan. Han, pelota zaratia entzun orduko inguratzen zan jendia. Ikastolako frontoira jende gitxi juaten da. Neretzako frontoi egokixagua zan Plazakua; zabal eta hormabikua egitteko aproposa.

Omenaldixa egingo dizuen 10 Bai taldekuek Elgoibarrentzako arauzko frontoi bat eskatzen debe. Ados zaude eskaerrikin?

Aspaldittik zagan Elgoibarren ganorazko frontoi baten biharra. Horrenbeste pelotari euki dittuan herrixan frontoirik ez? Gaur egunian edozein auzotan daude Elgoibarren baiño frontoi hobiak. Bat egin zaben hor goixan eta balixo ez zabana bera, penagarrixa [Kiroldegixan egin zebenaz ari da].

Asier Orbea



San Lorentzoko Pelota Txapelketako bi argazki. Jabeek frontoia itxi zebenian laga ziuernian auzotarrek txapelketia antolatziari.



Martxoan...

JAIOTAKOAK



**Maite Cearsolo
Goronaeta** Martxoak 8
Xabier eta Ainhoa



Oinatz Arriola Roteta
Martxoak 8
Gorka eta Lisbeth



Yera Elizburu Hernandez
Martxoak 11
Igor eta Silvia

Kenai Ibañez Fernandez
Martxoak 4
Julio eta Arantza

Unax Egafía Ofiederra
Martxoak 8
Asier eta Olatz

**Lorelei eta Ruben de
Miguel Revuelta**
Martxoak 10
Alfredo eta Beatriz

Axier Sagasta Perez
Martxoak 11
Joseba eta Sara

Leire Cespedes Peralta
Martxoak 17
Ana Gabriela

Unax Badiola Etxaide
Martxoak 14
Iosu eta Aintzane

HILDAKOAK

Pakita Altzelai Aranguren • 82 urte • Martxoak 1
Jose Mari Agirremalloa Kaltzakorta • 88 urte • Martxoak 6
Jose Jauregi Urkizu • 90 urte • Martxoak 6
Crescen Zabala Aranberri • 78 urte • Martxoak 9
Maria Luisa Belaustegi Arrilaga • 88 urte • Martxoak 13
Maria Epelde Arriola • 94 urte • Martxoak 23
Joseba Argarate Unzila • 82 urte • Martxoak 24

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilaibeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

gorka gonzalez

11 urte

Azken ikasturtea duzu Mendaro Ikastolan. Datorren urtean Elgoibarrera joango zara. Pozik?

Bai, baina beldur pixkat ematen dit, ez ditudalako irakasleak ezagutzen. Hemen ibilitako lagunak ezagutzen ditut, eta alde horretatik lasai nago.

Urrutiko lagun bat bisitan etorriko balitzaizu, zer da Mendaron lehenengo erakutsiko zenukeen gauza?

Ez dakit, Mendaron dena delako polita. Beharbada, ospitale azpian dagoen parkea erakutsiko nioke, nahiz eta belarra oso luzea egoten den.

Ikastolako zuzendari bazina zer egingo zenuke?

Opor egun gehiago jarriko nituzke, eta etxerako lan gutxiago agindu. Ikastola ere margotuko nuke barrutik, apur bat soso dago eta.

Zer hiru gauza eskatuko zenuktuzke?

Dirua, leku eguzkitsu batera bidaia bat, eta gerrarik ez egotea.

Nagusitan zer izan nahiko zenuke?

Ez dakit, baina futbol jokalaria profesionala izatea ez legoke gaizki. Bartzelonan jokatzea amets bat izango litzateke.

Zerk lotsarazten zaitu?

Denen aurrean abes-teak.

Miresten duzun norbait?

Gerard Pique

Sekretuak nori kontatzen dizkiozu aurrena: gurasoei ala lagunei?

Lagunei. Gurasoei ezin zaie dena esan.

Nola esango zenioke maite duzula benetan maite duzun pertsona bati?

Holaxe. Maite dudala. Aurrez aurre esango nioke.



Irteera

Zuhaitz Eguna

Herri Eskolako eta Ikastolako 80 bat ikaslek 40 zuhaitz inguru landatu zituzten Zuhaitz Egunean. Azken bost urteetako ohiturarari jarraituz, Albitxuriko industrigunera doan bidearen bazter batean landatu zituzten zuhaitzak ikasleek, aurreko urteetan landatutakoen ondoan.



Zer da aberatsa izatea? Zein da munduko aberatsena?

**Paul
Agirrezabala**

6 urte

Zoriontsu izatea da aberatsa izatea, eta nire gelako Julen da aberatsena, beti pozik dagoelako.



Ekaitz Cuenca

6 urte

Besteek baino indar gehiago izatea da aberatsa izatea. Nik uste dut Julen dela aberatsena, gelako indartsuena delako.



Adrian Mangana

6 urte

Diru asko izatea da aberatsa izatea, baina ez dakit zeinek daukan gehien. Eta gainera, berdin zait..



Eider Rubio

6 urte

Munduko aberatsena? Ba diru asko-asko daukan gizonen bat edo. Denek dute diru asko, Afrikak izan ezik. Afrikan oso pobreak dira, eta ez dute jateko askorik. Nik ere diru asko daukat kartera batean gordeta. Igual ehun euro edo.



Maddi Arriola

6 urte

Diru asko-asko dutenak dira aberatsak, baina nik ez dakit zein den aberatsena. Berdin zait zein den aberatsena, ni ondo nagoelako.



Laia Aizpurua

6 urte

Futbolariak dira aberatsak, eta aberatsenak Bartzelonako jokariak dira, onenak direlako. Realekoek ere badute dirua, Athleticekoek baino gehiago.



Erretratu zaharra



1957

Aste honetako erretratuak Pedro Garatek ekarri ditu BARRERERA. 1957an Erromara egini-ko bidaian ateratako argazkiak dira. San Bartolome jaietan joan ziren, Munduko Gazteen Topaketetara, Pio XII Aita Santua zela. Hiru nazio aukeratu zituzten ekitaldian dantza egiteko: Espainia, Australia eta Belgika. Hasieran Andaluziako dantzak egiteko asmoa erakutsi zuten antolatzailleek, baina azkenean, Euskal Dantzak egitea erabaki zuten. Zortzi herritako dantzariak hartu zuten parte, hamabi laguneko taldeetan. Elgoibartik hamabi lagunek egin zuten dantza, urte hartako Txiki Egunean. Goiko erretratuan agertzen dira dantzariekin batera Erromara joan ziren guztiak, eta beheko argazkian Elgoibarko dantzariak daude. Pedro Garatek ez ditu goiko argazkiko guztiak ezagutzen, baina dantza egin zuten mutil gazte horien izenak gogoratuko ditugu.

Zutik, ezkerretik eskumara:

Jesus Arrieta, Eñrike Larrañaga, Bizente Mugertza, Jose Luis Arrese, ezezaguna, Manolo Rementeria, Emeterio Belaustegi, Sebastian Etxabe (†).

Makurtuta: Plaentxiarra, Sabin "Agarre Txiki" (†), Pedro Garate eta Sabin Osoro.



ESKERTZA

JOSEBA ARGARATE UNZILLA

2011ko martxoaren 24an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Bernardo Ezenarro kaleko igogailua martxan dago.

Neurri egokiak dira eskailera mekanikoak eta igogailua irisgarritasuna hobetzeko?



Aritz Meabebasterretxea
34 urte, irakaslea

Niri ondo etortzen zait institutura igotzeko eta handik bajatzeko, eta nagusientzako ere ondo ikusten dut. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, igogailua elektrikoa dela, eta kontzientziatu egin behar gara beharrezkoa ez denean ez erabiltzen, energia aurrezteko.



Manu Mora 52 urte,
Heziketa Fisikoan lizentziatua

Bai, niri ideia oso ona iruditzen zait, nagusientzako bereziki. Elgoibarraren, erdigunean izan ezik, aldapak eta eskailera bako ez dauzkagu auzoetan, eta igogailua oso ondo etorriko zaigu. Gainera, ingurunea zaindu dute, eta estetikoki oso polita geratu da. Garapena positiboa da.



Susana Armendariz
42 urte, arrain saltzailea

Bai, dudarik gabe. Garestia izan arren, niri primeran datorkit. Igogailu parean bizi gara, eta umearen aukiarekin edo erosketekin igotzeko oso eroso da. Ez nago seguru, baina eskailera mekanikoak garestiagoak direla uste dut, beraz, aurrerantzean hobe izango da igogailuak jartzea.



Pedro Vergara
63 urte, jubilatua


Bai. San Roken bizi gara, eta martxan jarri dutenetik alde handia igarri dugu, umearen aukiarekin ibiltzeko, bereziki. Igogailuak igotzeko eta jaisteko balio du, beraz, eskailera mekanikoak baino gehiago gustatzen zait. Irisgarritasuna hobetzeko den guztia ondo ikusten dut.

■ SEMAFOROA



Zapatuko ferian oso giro ona egon zen: "Azken hilabeteetan baino giro hobea izan zen zapatuko ferian, eta oso gustura ibili ginen. Txosnak eta Kale Kantarien saioak asko jantzen du hilabete azken zapatuko feria. Gainera, motor taldekoek prestatutako pintxo ederrak dastatu genituen, oso prezio onean. Feria honekin denok irabazten dugula iruditzen zait: herritarrek, baseritarrek, elkarteek... Txalo bat merezi dute antolatzaileek. Hala ere, herritarrei eskatu nahi nieke feriara irteteko ohitura hartzeko. Garai batean indar handia izaten zuen feriak, eta polita izango litzateke hura berreskuratzea." ⇒

ITS enpresak eskerrak eman nahi dizkie sare sozialetan buruzko saioan parte hartu zuten herritarrei: "Mila esker gure saioetara etorri zareten guztioi. 250 lagun inguru izan zarete gure saioak jarraitu dituzuenak, eta hori oso positiboa izan da guretzako. Espero dugu gure saioak probetxugarriak izatea zuentzat. Eskerrik asko. Datorren ostegunean, apirilaren 7an, guraso eta hezitzaileentzat bigarren prestakuntza saioa emango dugu, 19:00etan Kultur Etxean. Aurreko saioan oso gustura aritu zirenekin, eta landu gabeko gaiak geratu zirenez, hurrengo saio honetan aholkuen atala sakondu eta gurasoentzako kontrol programak aztertuko ditugu".



Zuen kezak, galdarak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkolozarra.com 943 744 112

Berrehun lagun inguru batu ziren Arnaldo Otegiren aldeko bertso bazkarian

Amets Arzallus eta Jon Maia bertsolariek jardun zuten bertsoan

Amets Arzallus eta Jon Maiarekin bertso bazkaria antolatu zuen Arnaldo Otegiren aldeko plataformak, eta berrehun lagun inguru batu ziren ikastolako frontoian. Bazkariaren aurretik trikipoteoa egin zuten, Plaza Handitik hasita. Madalan egin zuten bat Jon Maia eta Amets Arzalluz bertsolariekin, eta handik Ikastolako frontoirantz abiatu ziren denak. Bazkalostean, neurri txiki eta handian egindako bertso eder saila entzun eta gero, Balzola anaien trikiti doinuekin dantz egitera ere animatu ziren banaka batzuk. Antolatzaileak "oso pozik" agertu dira ekitaldiak izandako erantzunarekin.



Zine erlijiosoari buruzko zikloa antolatu du Ongarri zineklubak apirilerako



Ongarri zineklubak zine erlijiosoari buruzko zikloa antolatu du apirilerako, Udaleko Kultura Sailarekin elkarlanean. Hlru pelikula emango dituzte guztira.

Lehenengo filma *Lourdes* izango da, apirilaren 7an. Neska elbarritu bat Lourdesera joango da Ama Birjinari oinez ibiltzeko eskatzera, eta goiz batean miraria gertatuko da. Hortik aurrera, bitzta berri bati ekingo dio. Filma 21:30ean hasiko da.

Apirilaren 14an, berriz, *Cartas al padre Jacob* pelikula emango dute. Ja-

cob apaiz zaharra itsututa dago, eta kartzelatik irten berri den emakume hiltzaile baten laguntza eskatuko du, herritarrek idazten dizkioten eskutitzei erantzuteko. Emakumeak apaizaren eskaera onartuko du.

Hirugarren eta azken filma Aste Santuarekin batera irtsiko da, eta euskaraz edo gazteleraz ikusteko aukera izango da: *Jainkoez eta Gizakiez* pelikula euskaraz, eta, *De Dioses y hombres*, izango da gaztelerazko bertsoia. Pelikula frantsesa da, eta Canneseko azken zinemaldian Epaimahairen Sari Nagusia irabazi zuen. 1990eko hamarkadan Magreb-eko mendietan herritar musulmanekin bizi diren zortzi monje zistertarren istorioa kontatzen du. Fundamentalista islamiakoen talde batek atzerriko langile batzuk hil eta izua zabaldu da hirian. Armadak babesa eskaini die monjeei, baina haiek uko egingo diote. Filmaren oinarrian Tibhirineko (Algeria) monje zistertar batzuen benetako bizipenak daude.

'Nick Maritxu, nick Bartolo' antzerkia datorren barixakuan

Glu Glu Produksioak taldeak *Nick Maritxu, nick Bartolo* antzez-lana taularatuko du datorren barixakuan (apirilak 8), Herriko Antzokian. Maritxu eta Bartolo ezizendun bi gaztek txatean topo egingo dute. Denbora batez Internet bidez komunikatzen egon eta gero hitzordua jartzea erabakiko dute, eta non eta opera bateko biltegi zaharrean pasatuko dute gaua elkarrekin. *Maritxu, nora zoaz* kanta ospetsua abiapuntu hartuta, antzerkiak eta dantzak bat egingo dute antzezlanean. Ezustekoz eta umorez beteriko komedia da. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da, eta sarrerak aurrez erosi daitezke, www.kutxa.es helbidean.



Ane Espillak eta Aitor Asenjok irabazi dute Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa

Inazio Bereziartua eskolako 11 dantzarik hartu zuten parte

Ane Espilla eta Aitor Asenjo dantzariak irabazi dute Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa, 11 eta 15 urtekoen saillean. Joan zen asteburuan jokatu zuten Elgoibarko kanporaketa, Herriko Antzokian, eta bi dantzari horiek izan ziren epaimahaikideen ustez onenak.

Guztira 69 dantzarik hartu zuten parte, eta horietatik 11 izan ziren Inazio Bereziartua eskolakoak. Zapatuan hamahiru mutilak hartu zuten parte 7 eta 11 urte artekoen kategorian, eta horien artean, Joseba Astigarragak hirugarren sailkatu zen, eta Julen Guillók zazpigarren egin zuen. Domekan, bestalde, June Loidi hamaikagarren geratu zen, 7 eta 11 urte artekoen saillean.

Nagusien txandan, Ane Espilla eta Aitor Asenjoren garaipenekin batera, ondo-



rengo emaitzak lortu zituzten dantzari elgoibartarrek: Iraitz Gonzalez (3. postua), Alaitz Egaña (5. postua), Miren Astigarraga (6. postua), Leire Astigarraga (8. postua),

Leire Urzainki (9. postua) eta Maialen Loiola (20. postua).

Hurrengo kanporaketa Billabonan jokatuko dute, apirilaren 9an.

Oscar Pereira argazkilariaren lanak jarri dituzte ikusgai Kultur Etxean hilaren 15era arte

Ongarri argazkilari taldeak Oscar Pereiraren erretratu erakusketa antolatu du. *Portraits I* izena jarri dio argazkilaria erakusketari, eta bere lagunen erretratuek osatzen dute bilduma. Azken lau urteetan aurrez aurre eginiko argazkiak dira, eta bere zaletasunak ere islatzen dira argazkietan. Ingeles filologian lizentziatua da, eta musika izugarri gustatzen zaio. Aspaldi hasi zen argazkigintzan, eta rock kontzertuetan ateratzen zituen argazkiak. Musikaz gain, beste hainbat zaletasun ere baditu, eta bere ametsak islatzen ditu erretratuetan. Hilaren 15era arte egongo da zabalik erakusketa, 19:00etatik 21:00etara.



Udaberri Festa egingo dute bihar, Plaza Handian

Atxutxiamaiak aisialdi taldeak Udaberri Festa antolatu du biharko 2 eta 8 urte bitarteko umeentzako jaia izango da, eta goizeko 11:30etik aurrera, tailerrak, eta jolas pista bat jarriko dituzte Plaza Handian. Horrez gain, ipuinak ere kontatuko dituzte.

Arte tailerra, astelehenean

Haizea emakume taldeak arte tailerra antolatu du astelehenerako. Jardunaldi horretan *Los filosofos I* artelana landuko dute. Tailerra 17:00etan hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Ekialdeko medikuntzari buruzko hitzaldia, gaur

Roberto Callado eta Miriam Lara adituek ekialdeko medikuntzari eta akupuntzari buruzko hitzaldia eskainiko dute gaur, 19:30ean, Kultur Etxean.

Iraide Rovira Sanloko jokalaria deitu du Espainiako eskubaloï selekzioak

Alkorta taldeak bigarren nazional mailara igotzeko lehen partida irabazi du

Espainiako selekzioak Iraide Rovira (infantila) eskubaloï jokalaria deitu du, eta apirilean egingo duten kontzentrazioan hartuko du parte elgoibartarrak. Apirilaren 25etik 29ra egingo dute kontzentrazioa Getafen, eta guztira, Espainiako 40 bat jokalaria batuko dira han.

Alkortaren garaipena

Alkorta senior mutilen taldeak bigarren nazional mailarako igotzeko lehen partida irabazi du Egiaren kontra. Partida gogorra izan zen, eta lehen zatian bi puntuko aldea atera zion talde donostiarrak Alkortari. Atsedendian, beraz, 20-18koa zen emaitza, etxekoen alde. Bigarren zatian, ordea, markagailuan buelta egon zen, eta elgoibartarrek 30-35 irabazi zuten. Alkortak Egiaren kontra irabazten duen estreinako partida izan zen asteburukoa. Sanloko arduradunek Elgoibartik joan ziren ikusleei eskerrak eman nahi dizkiete, une garrantzitsu honetan taldeari animoak emateagatik. Alkortak, bestalde, Corazonistas taldea hartuko du bihar Olaizaga kiroldegian, eta herritarrei babesa ematera joateko eskatu die Sanlok. Bigarren nazional mailarako igoera txartela dago jokoan, eta



eskubaloï taldeak zaleen babesa eta animoak behar dituela adierazi dute Sanloko arduradunek.

Azkenik, jubenetako Grupo Eibar eta Lauko taldeak, eta baita kadete mailako nesken taldea ere, Euskadiko Txapelketako fase finala jokatzeko sailkatu dira.

Nagore Rodriguez igerilariak 50 metroko lasterketa irabazi du tximeleta estiloan



Elgoibarko igeriketa taldeak Zehaztasun Ligako jardunaldia jokatu zuen joan zen asteburuan Bergaran, eta Nagore Rodriguez bere mailako onena izan zen 50 metroko tximeleta proban, 43,58 denborarekin. Gainerakoen denborak ondorengoak izan ziren: Jone Albizu (25,77), Kimetz Bergaretxe (52,58), Gorka Bolunburu (54,40), Ainhoa Rodriguez (55,53), Zorione Cuesta (51,68), Maialen Loiola (49,54) eta Elsa Astigarraga (50,84). Bestalde, 100 metroko proban Laura Alvarezek 1:52:67 denbora egin zuen, eta Eneko Larruskainek 2:00:76.

Concepto Createch taldeak partida garrantzitsua, bihar

Concepto Createch Elgoibarko areto futbol taldea txapelketako lehen postuan dago, liga amaitzeko sei jardunaldi falta direnean. Laskorain taldea dago bigarren lekuan 11 puntura, eta bihar, norgehiagoka garrantzitsua jokatu dute Olaizaga kiroldegian. 16:30ean hasiko da partida.

Imanol Osoro nagusi, Hiru Txirlo txapelketan

Imanol Osoro lehen postuan dago Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketan. Joan zen asteburuan jokatu zuten bigarren jardunaldia Aiestia-San Migelen, eta irabazi ez bazuen ere, bost txirlo bota zituen sanmigeldarrak. Lehenengo jardunaldian berak irabazi zuen Idotorbe-San Pedron, lau txirlorekin. Hortaz, bederatzi txirlorekin sailkapen nagusiko lehen postuan dago. Hurrengo jardunaldia bihar jokatu dute, Lasturren.

Julia Agirre lehenengo dago Euskadiko Karting Txapelketan

Joan zen astean laugarren egin zuen Burgosen



Euskadiko Karting Txapelketako proba jokatu zuen Julia Agirrek joan zen astean Villarcayon (Burgos), eta mendaroarrak laugarren amaitu zuen proba. Ez zuen proba ona egin Agirrek, eta bi mangetan nahiko gaizki ibili zen. Hala ere, sailkapen nagusian lehenengo postuan jarraitzen du Mendaroko pilotu gazteak, Ander Gamonekin berdinduta, (57 puntu dituzte). Hurrengo proba Gueñesen (Bizkaia) jokatu dute apirilaren 24an.

Morkaiko Eguna antolatuko du mendi elkarteak maiatzaren 21erako



Morkaiko mendizale elkarteak Morkaiko Eguna antolatuko du maiatzaren 21erako. Egun horretarako Elgoibarko Itzulia antolatu dute, baina aurren, Elgoibarko Itzulia ere prestatzen dihardute, ume eta gaztetxoentzako. Plaza Handitik irtengo dira partaideak, eta

Idotorbe-San Pedrorra igoko dira oinez. Handik, Hiru Iturri eta Morkaiko pasatu ondoren, Aiastia-San Migelera iritsiko dira, eta Mendi Itzuliko partaideekin bat egingo dute han. Horrez gain, Finalista Eguna ere egun berean ospatzeko asmoa daukate antolatzaileek.

Morkaikoko arduradunek baldintza bakarra jarri dute Mendi Itzultxoan egin ahal izateko: bost umeko talde bakoitzeko arduradun bat egotea.

Mendi Itzulirako eta Mendi Itzultxorako izena emateko epea maiatzaren 19an amaituko da, eta Finalista Egunerako papeletak apirilaren 28rako eraman behar dira elkarteko lokalera. Informazio gehiago 943 740297 telefonon.

EMAITZAK

FUTBOLA

Santutxu 2 – Haundi 4 (3. maila)
Elgoibar 1 – Mutriku 0 (Erreg. Pref.)
Mariño 1 – Elgoibar 2 (Ohorezko jub.)
Lengokoak 1 – Elgoibar 2 (Kad. A)
Zestoa 0 – Elgoibar 3 (Kad. B)
Beasain 3 – Elgoibar 0 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 5 – Añorga 1 (Inf. Txiki.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 – Hernani 12 (1. mailako nag.)
Lagunak 20 – Hernani 22 (1. mailako jub.)

Debarroko txapelketa

Lagunak 22 – Arrasate 12 (Jub.)

Pala

Altzatarra 25 – Lagunak 15 (2. mailako nag.)

XAKEA

Fortuna C 0,5 – Mekatar Elg. 3,5

ARETO FUTBOLA

Ceramicas Nogales 0 – Concepto Createch Elg. 4
King Kong Elg. 7 – Orixe Tolosa 4

ESKUBALOA

Tecnifuelle Elg. 21 – Aiala 24 (Sen. neska.)
Grupo Eibar Elg. 28 – Usurbil 16 (Jub. neska.)
Lauko Elg. 21 – Basauri 16 (Kad. neska.)
Egia 30 – Alkorta Elg. 35 (Sen. mut.)
Bergara 19 – Berstain Elg. 29 (Jub. mut.)
Karibe Zaharra 23 – Txariduna Elg. 22 (Kad. mut.)
IMH Elg. 28 – Pulpo 24 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 21 – Aloña Mendi 18 (Inf. mut.)
Arrate 24 – Aterpe Elg. 20 (Inf. mut.)
Astigarraga Elg. 16 – Egia 10 (Inf. neska.)
Leitzarán 8 – Ikus Elg. 21 (Inf. neska.)
Elgoibar 10 – Aloña Mendi 6 (Aleb. neska.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

16:30 Concepto Createch – Laskorain (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 2

12:30 Elgoibar – Orioko (Kad. A)

15:00 Elgoibar – Anaitasuna (Ohorezko inf.)

18:00 Haundi – Gernika (3. maila)

Domeka, 3

10:30 Elgoibar – Aloña (Aleb.)

12:00 Elgoibar – Touring (Inf. Txiki)

16:30 Elgoibar – Santo Tomas Lizeoa (Ohore. jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

9:30 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. neska.)

10:45 Txariduna Elg. – Arrate B (Kad. mut.)

18:15 Lauko Elg. – Zarautz (Kad. neska.)

19:45 Alkorta Elg. – Corazonistas (Sen.mut.)

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka.
☎ **648 603 029**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Orduka.
☎ **608 820 954**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka.
☎ **606 226 827**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.
☎ **662 267 569**
- Neska euskalduna emakumeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest.
☎ **626 490 986**
- Emakume nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest.
☎ **646 506 777**
- Emakume lanerako prest. Zerbitzari, frutategian, gasolindegian... edozein lanerako prest.
☎ **638 955 012 / 943 201 254**
- Emakume nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Orduka.
☎ **652 446 228**
- Emakume nagusiak edo umeak zaintzeko prest.
☎ **617 077 922**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko nituzke.
☎ **646 977 562**
- Emakume lanerako prest. Orduka egingo nuke lan.
☎ **628 658 982**
- Emakume euskalduna eskaintzen da bulegoak garbitzeko.
☎ **687 114 707**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka.
☎ **690 177 259**
- Emakume lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile...
☎ **608 474 923**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera edo sukaldari laguntzaile...
☎ **609 148 861**

- Emakume nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Erizain laguntzaile titulua daukat.
☎ **635 355 168**
- Emakume gauzez edo asteburuetan nagusiak zaintzeko prest.
☎ **618 163 061**
- Emakume nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest.
☎ **666 008 974**
- Emakume nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest.
☎ **698 398 818**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko nituzke, edozein ordutan.
☎ **699 609 190**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interna edo orduka.
☎ **629 076 301**
- Emakume pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Edozein ordutegi.
☎ **943 530 795 / 678 972 690**
- Neska edozein lan egiteko prest. Malgutasuna daukat.
☎ **699 619 447**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak ditut. Interna edo orduka egingo nuke lan.
☎ **634 650 009**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentu polita salgai Mendaron. Berria, logela bat, komuna, sukalde eta egongela. 2001ean eraikia. 126.500 euro.
☎ **652 718 426**
- Pisua salgai Mendaron, Azpilgoetan. 75m², igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua, dena kanpoaldera begira. 165.000 euro. Negoziagarria.
☎ **655 746 480**
- Emakume pisua hartuko luke alokairuan.
☎ **618 734 000**

- Senar-emazteak gara, seme baten gurasoak, langileak eta oso arduratsua. Bi edo hiru gelako etxea hartuko genuke alokairuan.
☎ **689 847 947 / 676 602 481**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukalde, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria.
☎ **688 658 183**

PARTIKULARRAK

- Ingeles eskolak hartuko nituzke etxean.
☎ **660 467 729**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan.
☎ **686 611 665**

BESTELAKOAK

- Perikitoak ihes egin digu Pedro Muguruza inguruan. Kolore horia dauka.
☎ **943 741 787**
- Txakurkumeak saltzen ditut, prezio onean. Artzai txakur alemaniarra.
☎ **660 116 314**

MERKATU TXIKIKO OHARRA

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Prezioak:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)

Autoak saltzea: 12 euro.

Bestelakoak: 6 euro

Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Maddi**, asteazkenean 3 urte egin zenituelako. Gurasoen, eta bereziki, Erikaren partez.




• Zorionak, **Enara**, zure zortzigarren urtebetetzean. Muxu asko gurasoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Leire**, atzo urtebete egin zenuelako. Muxu potolo bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Julen**, zure zazpigarren urtebetetzean! Patxo bat etxeko eta bereziki Naiaren partez.



• Zorionak, **Elsa**, zure lehen urtebetetzean. Etxeko partez, ondo-ondo pasa!



• Zorionak! Gure etxeko **Piritzek** 4 urte beteko ditu ostegunean! Jone, Maddi, Mikel eta etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Leirel** Bost pa handi etxeko printzesarentzat. Egun polita pasa!



• Zorionak, **Einer**, 4 urteko betetzen dituzulako. Oso ondo pasatuko dugu igandean! Muxu bat Junesen partez.



• Zorionak, **Asier**, gaur 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako eta bereziki, arba Maialenen partez.



• Batenak pasatu dira, bestearenak badatoz. **Ane eta Irati**, zorionak denon partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Eskerrik asko larunbatean etorri zineten guztioi! Oso ondo pasatu genuen. Ia datorren urtean gehiago elkartzen garen.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.
 BARRENeke bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

1 barixakua

Erakusketa

19:00 'Portraits'

Oscar Pereira argazkiliariaren erakusketa, Kultur Etxean.

2 zapatua

Kirola

11:00 Sallobenteko frontoiaren mendeurrena

Pilota partidak eta bazkaria egingo dituzte.

Azoka

11:00 Prestakuntzari buruzko

II. azoka

Kultur Etxeko sotoan.

Ospakizuna

11:30 Udaberri festa

Atxutxiamaikak antolatuta, Plaza Handian.

Kirola

16:00 Txirindulari lasterketa

Elgoibarko Lagun Taldea saria, kadete mailakoentzat. Irteera, Plaza Handitik.

3 domeka

Musika

10:15 Udal Musika Bandaren

Kalejira

Mendi irteera

10:00 Andutz mendira irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta.

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren

kontzertua

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Gasteiz*, martxa (J. Fresco)
2. *Mar I Bel*, fantasia (F. Ferran)
3. *Rapsodia euskalduna* (V. Beobide)
4. *Piratas del Caribe*, suite sinfonikoa (K. Badelt)
5. *Mambo Jambo* (Prado-Iwai)

7 eguena

Hitzaldia

19:00 Sare sozialak

Adin txikikoen pribatasunari eta segurtasunari buruzko prestakuntza saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

4 astelehena

Artea

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, Kultur

Etxeko hitzaldi gelan.



Apirilaren 7an,

BISUTERIA TAILERRA

ludotekan,

17:30ean hasita.

Animatu eta sortu zeure bitxiak!

Prest dauzkagu Aste Santuko irteerak: **ASKIZU, SANTA KATALINA ETA ZARAUTZ** gure zain daude. Izenemate epea apirilaren 10ean bukatzen da. Mugitu zaitez!



2011ko Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala eskuratu nahi? Pasa BARRENETIK eta hartu bat doan

OKINDEGIA

3 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK (24 orduz)

- | | |
|---|------------------------|
| 1 | Fernandez |
| 2 | Yudego |
| 3 | Yudego |
| 4 | Zabaleta |
| 5 | Etxeberria (Errosario) |
| 6 | Ibañez |
| 7 | Garitaonandia-Bidasolo |
| 8 | Etxeberria (Santa Ana) |

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Valor de ley»

- 1, barixakua: 22:15
2, zapatua: 19:00/22:15
3, domeka: 19:00
4, astelehena: 21:30

«La montaña mágica»

3, domeka: 16:30

«Lourdes»

(Ongarri zinekluba)

7, eguena: 21:30

«**Valor de ley**» Zuzendariak: Joel Coen eta Ethan Coen. EEBB, 2010. Iraupena: 108 minutu. Generoa: Drama. Aktoreak: Jeff Bridges, Matt Damon, Josh Brolin, Barry Pepper. Mattie Ross 14 urteko neska gaztearen aita tiroz hilko du Tom Chaney koldarrak. Neskatiak bere gain hartuko du justizia, eta Rooster Cogburn polizia buruaren laguntzaz, ahal duen guztia egingo du Chaney harrapatzeko. Bere zereginen lurralde Indio batera iritsiko da.

«**Lourdes**» Zuzendaria: Jessica Hausner. Austria, Frantzia eta Alemania., 2009. Iraupena: 99 minutu. Generoa: Drama. Aktoreak: Sylvie Testud, Léa Seydoux, Bruno Todeschini. Christine gurgildun alkia lotuta bizi da, eta bere isolamendutik irteko asmoz, Lourdesera egingo du bidaia, mirariak gertatzen diren Piriniotako herrira. Goiz batean, esnatzean, miraria gertatu dela konturatuko da. Maltako erromes talde bateko nagusiaren interesa piztuko du Christinek, eta zoriontsu izateko aukera hori aprobetxatuko du. Mirariak, taldeko beste kideen inbidia eta miresmena piztuko ditu.

ENJOY SUMMER
jolasen bitartez eta dibertitzen
zaren bitartean,
ikasi Ingelesa **ELGOIBARREN**

ILS

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta arduragatik

943 744 048

www.ils.es

IMBis gaudu



5 urtetik aurrera, ekainaren 27tik uztailaren 29ra bitartean, goizeko 10etatik 13etara.
Ingelesa modu naturalean ikasi aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanean bitartez

2011/2012 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA

HAURRAK ETA GAZTEAK – INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA

HAURRAK 4 urtetik aurrera GAZTEAK 12 urtetik aurrera

Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
Cambridge azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29- Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

15-16:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869

